

# Aretxagazeta

**ETA GAINERA...**

**Ze barri?**

ESKORIATZA

**San Pedro jaiak**  
argazkitan /8 eta 9

LEINTZ GATZAGA

**San Juan bezpera** /10

**Aretxabaletatik Urkulura**

# Bidegorria

## GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 06  
FRAILE, J. Herriko plaza, 10... 943 79 21 99  
DOMEKA, 07  
FRAILE, J. Herriko plaza, 10... 943 79 85 83

## TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Instituta	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

**UDALTZAINGOA**  
Arrasate 943 79 14 39

**LARRIALDIK**  
SOS Deiak 112  
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00  
Ertzaintza 943 79 71 99  
Gurutze Gorria 943 76 55 76  
Larrialdik 943 46 11 11  
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

## MEZAK

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:00, 12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Oharra: Hiletetan 19:00etan izango dira mezak parrokian.

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN: AOZARATZA**  
Zapatutan: 19:00  
**MENDIOLA**  
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

**GELLAO/GALARTZA/IZURIETA**  
Ez da mezarik esango

## OHARRAK

**ERRETIRATUEN IRTEERAN IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA**  
Gaur, egubakoitza, amaitzen da Donostia, Hondarribia eta Iruerako irteeran parte hartzeko izenemate epea. Erretiratuek 15 euro ordaindu beharko dituzte.

**EPEH PLATAFORMAKO MENDI MARTXA**  
Etzi, domeka, Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformak antolatuta mendi martxa egingo dute Kurtzebarriara. Irteera herriko plazan izango da, goizeko bederatzieta.

**EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRAK EMANGO DUEN KONTZERTURAKO SARRERAK SALGAI DAGOENEO**  
Akordeoi Orkestra 10. urteurrena ospatzen dabil. Ospakizunak uztailaren 20an (zapatua) amaituko dira, Euskal Herriko Gazte Orkestra Sinfonikoak emango duen kontzertuarekin. Kontzerturako sarrerak salgai daude Taberna Berrin, Arlutzen eta Iosun.

**'SHIATSU' IKASTAROA**  
Zainduz Osasun eta Fitness Zentroak ikastaroa antolatu du Ekialdeko *Shiatsu* masaje teknika ikasteko. Ikastaroa uztailaren 13an eta 14an izango da. Informazio gehiago, 943 71 37 92 telefonon


## LORAMENDIRENAGENDA

**BADIHARDUGU ELKARTEKO BAZKIDETZA KANPAINA, ZABALIK**  
Badihardugu euskara elkarte bazkide egiteko interesatuta bazaude, jo Loramendi Euskara Elkartera. Urtebeteko bazkideztza kuota 12 eurokoa da. Gainera, bazkide eginez gero, Badiharduguk *Deba Ibarretik Euskara Herrira* liburua oparituko dizue!

## ORAIN DELA 8URTE ARETXABALETAN

### Ospitale zaharreko gunearen inaugurazioa


1994ko uztailaren 6an inauguratu zuten ospitale zaharreko gune berria. Leku hartan lorategi erako gunea egokitu zuen Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan. Trenbide zaharreko bidea zaharberritu eta jarlekuak, zuhaitzak eta iturria jarri zituzten, besteak beste.



## BERTAKO BERBAK / Juan Mari Elexpuru

### "Irabazteille"

Irabazlea.  
-Zeintzuk izan die partiduko irabazteillak?



## LIBURUTEGIKOTXOKOA

### 'Biblioporrak liburutegian'

**8 URTEK AURRERAKOENDAKO**  
- 'Mari sorgin eskolan' / T. Blaker  
- 'Errima errebeldeak' / R. Dhal  
- 'Elefante txori bihotza' / M. Landa  
- 'Diecisiete cuentos y dos pingüinos' / D. Nesquens  
- 'Mi prima Carolina' / M. Morpurgo  
- 'Auskalo' / X. Olaso  
- 'Gansterren ihesi' / M. Valverde  
- 'Zoo loco' / M. Walhs


**10 URTEK AURRERAKOENDAKO**  
- 'Cuentos para contar en un minuto' / V. Bermejo  
- 'Dabrua gorputzean' / S. Callejas  
- '¿Quieres ser el novio de mi hermana?' / M. Carranza  
- 'Oin hegalaria' / A. Fernández Paz  
- 'Grimm anaien ipuinak' / J. Grimm  
- 'Galtzerdi Suizida' / M. Landa  
- 'Nieve de Julio' / C. L. Narváez

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA


## ZORIONAGURRAK




ARETXABALETA  
**Mikel Uribetxebarria**  
1ean. Zorionak eta muxu handi bat, lagun guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Jose Angel Cabero**  
3an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ARETXABALETA  
**Eneritz Herrasti**  
3an, 24 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Peñikaren partetik.



ARETXABALETA  
**Ander López**  
Sean, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Manolo Urtubi**  
Sean. Zorionak eta urte askotarako, zure lagunen partetik.



ARETXABALETA  
**Ibon Agirre**  
6an. Zorionak, ARETXAGAZETAko langile eta batzordekideen partetik.




ARETXABALETA  
**Inma Miguel**  
7an. Zorionak eta ondo ondo pasatu Sanfermine-tan!!!



ARETXABALETA  
**Maria Jesus Ibañez**  
7an. Zorionak, eta jarraitu horrelaxe aurrerantzen ere!

## Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETAren bidez!  
Ekar ezazu bere argazkia eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**  
Durana, 11.



**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Uztailean  
Goizeko 7etatik ordu 2arte

**Abuztuaren  
12tik 26ra  
ITXITA**

Aretxabaleto Industrialdea F-0-4  
Araba Ibilbidea  
20550 ARETXABALETA  
Tfnoa.: 943 791844 / Faxa: 943 792941  
info@eguzkigraf.com

## ARTANO akaitegia



Gosariak  
goizeko  
7:00etatik  
aurrera!

Herriko plaza 3. Tel.: 943 79 62 75 ARETXABALETA

**ATREBENTZIAEZPADA/ Urtero etorten zara Udaleku Irekixetara? Ze gustetan jatzu gehixen?**



**ARIANE UNANUE**  
10 urte



**JOKIN CIFUENTES**  
5 urte




**MAIDER FERNÁNDEZ**  
3 urte



**MARKEL OSKOZ**  
7 urte



**PAULA IBAÑEZ**  
9 urte



**KEPA AGINAGALDE**  
4 urte

Bai, urtero etorten naz eta oso ondo pasetan dot. Dana gustetan jat: San Fermin egune, Uren egune, Galarzara lo egittera juetie, lagun barrixek,... Ezin izen-ge neuke bat aukeratu.

Igez be ibilli nitzen eta oso ondo pasau neuen. Gauza asko egitten dittugu: margotu, jolastu, San Fermin egune ospatu... Kamisetak be emuten duskue eta oso polittek izeten die.

Aurten etorri naz lelengo aldiz eta ondo pasetan nabil. Nire eskolako lagunek daguz eta jolas egitten dogu. Gaur, mosua margotu dogu eta makarroiekin koillarrak be egin dittugu.

Urtero etorten naz eta oso ondo pasau izen dot. Gehixen eskulanak egittie gustetan jat, baiñe San Fermin egunien eta Uren egunien be ondo pasetan dot. Dana gustetan jat.

Urtero etorten naz, oso ondo pasetan dotelako. Uren egune da gehixen gustetan jate-bero, egitten dauenez, bata bestie bustitten ibiltten garelako. Aurten, eskursiñuen be juengo gara.

Igez be etorri nitzen, eta ondo pasau neuen, aurten be bai. Dana gustetan jat, baiñe gehixen lagunekin jolastie. Globuekin jolasien ibilli gara gaur eta oso ondo pasau dot.

**TXALOAKETATXISTUAK**



**TXISTUAK BIDEGURUTZEAN EZIN IKUSI** Bidegurutzeetan, batez ere, oso garrantzitsua da ondo ikustea. Argazkiko horretan, ordea, automobilaren muturra aurreraino atera behar da beste autorik datorren edo ez ikusteko, eta bizkor samar etorritz gero... Marra horiak ezin dela aparkatu esan gura du, eta horixe dago lurrean margotuta, baina batzuek ez dute ikusi gura. /MIRARI ALTUBE

**ETABARRUAN...**

<b>ASTEAN BEHIN /4</b>	<b>ASTEAN BEHIN /5</b>	<b>KIROLAK /6</b>
<b>Plataformak mendi martxa</b>	<b>Bidegorria Urkulura</b>	<b>Udako Kirol Kanpaina</b>
Etzi, domeka, Kurtzebarrira mendi martxa antolatu du EPEH Aretxabaletako Plataformak.	Bainuetxetik Urkuluraino joango den bidegorria egitea onartu zuten osoko bilkuran.	Uztailaren 11n, Kirol Zerbitzuek antolatutako Udako Kanpainaren bigarren txanda hasiko da.

**ASTEKODATUA**

**192**

**UME ETA GAZTETXO ARI DIRA UDALEKU IREKIETAN**

Umeak eta gaztetxoak oporretan daude; hala ere, ez daukate asperetzeko aitzakiarik. 192 gaztetxo udaleku irekietan dabilta eta 77, berriz, kirol etxeak antolatutako Udako Kirol Kanpainen.

**BESTEKEESANA**


**“ Bidegorriaren lanak konkurtsora ateratzea onartu da, legalki atera behar baita, eta orain**

**jendea aurkeztuko da. Guri lehenbailehen hastea komeni zaigu. Abuztua aldera, pentsatzen dugu jendea apuntatuta egongo dela, eta aurrekontuetan sartzen den edo ez ikusi ostean, irailean berriz plenotik pasatu eta lanekin hastea izango litzateke asmoa.**

**Lehenbailehen komeni zaigu, izan ere orain arte kostu egin zaigu. Iaz egitekotan ibili ginen baina arazoak sortu ziren eta atzeratu egin genuen. Lanak hasten direnean eguraldi sikua izatea komeni da, lekua nahiko umela da eta urak saneatzeko orain egitea komeni da. Horrela obra askoz merkeagoa izango da eta askoz hobeto geratuko da.**

**JABIER ETXEBARRIETA**  
GOITB/02-07-02

**HERRITARRENBERBAK/ Iratxe Bengoa**



*Ondo aparkatzen ikasi behar*

**A**rrasaten eta Bergaran aparkalekuak arazo bihurtu dira. Gero eta auto gehiago eta herrian toki gutxiago. Zorionez Aretxabaletan oraindik ez daukagu horrelako arazorik. Edo bai? Durana kalea autoz beteta egoten da, garaje pareetan gero eta auto gehiago uzten dituzte, espaloi gainean eta zebra bideetan autoen artetik ezin pasatuta ibiltzera ohitu gara oinezkook... Hau guztia gure herrian, Aretxabaletan.

Baina benetakoa da edo geuk automobildunok sortzen dugu? Kutxara dirua ateratzera edo egunkaria eroatera autoarekin joaten ohitu gara. Zapatu gauean koadrilarekin kafetxo bat edo trago batzuk hartzeko ere batek baino gehiagok ekartzen du autoa. Umeak eskolara ere autoan eroaten ditugu. Jakina, gero aparkatzeko arazoak sortzen dira! Gasteizera goazenean, osterara, ahal dugun lekuan uzten dugu automobila: El Corte Inglés-eko aparkale-

kuan, Dendaraba-koan edo autobus geltoki inguruan tokitxoren bat egonez gero, han ere bai. Gero oinez joaten gara dendetara, zinemara edo joan gura genuen lekura. Ah, baina hori ezberdina da...

Ez dakit beste egoera bat den edo ez, baina argi dago gure herrian ere gaizki aparkatutako autoak arazo bihurtzen hasi direla. Nola konpondu hori... momentuz udaltzainek isunak jarrita. Tristea da gero isunak jarri beharra, baina orduantxe baino ez dira gutxitzen autoak gaizki

**“Argi dago gure herrian ere gaizki aparkatutako autoak arazo bihurtzen hasi direla. Nola konpondu hori...”**

aparkatutako tokietan. Durana kalean autoak utzi ez daitezen zutabe gehiago jartzen hasi dira astean. Kalea zatartuko duten antza hartzen diet, ia zer edozertarako balio duten behintzat...

Kanpoan, Japon inguruan edo, aparkalekuen arazoa konpontzeko autoa erostearekin batera garajea erostea proposatu zuten. Ez da ideia txarra, ez dakit, ordea, arazoa konponduko litzatekeen...



M. J. Aretxaga

## Ez da asko falta

Uztailean sartzeaz bat opor usaina hartu dut. Pozik nabil oporrak hartzeko gero eta gutxiagoa gelditzen delako, izan ere deskantsu egun batzuk ederto etorriko zaizkit. Askok zorte hobea dute, eta dagoeneko oporretan daude; ikasle eta irakasleak dira gehienak. Oporretan egon arren, eskolatik ere heldu zaizkigu berriak. **Kurtzebarri** eskolako DBHko ikasleei Eibarko Armeria Eskolak saria eman die. Teknologi proiektu dotorea aurkeztu eta saria, zorionak guztio!

Kurtzebarri eskolatik Kurtzebarri mendira egingo dugu salto. Izan ere, domekan **EPEH Plataformak** mendi martxa antolatu du Kurtzebarri-ara. Elizabarrin hamarretakoa egingo da, eta trikitilariak ere izango dira. Beraz, domekarako hemen duzue plan on bat, animatu arrazoia ere ez da txarra eta.

Datorren astean, berri, San Kristobal eguna ospatuko dute Larrino auzoan. Asteazkenean meza izango da 20:00etan auzoko elizan. Auzotarrak gustura hartuko dute eguna, urtean behin izaten da-eta. Dena dela, gusturago egongo lirateke behingoagatik auzoko bidea konponduko balute. Dirua tartean dagoenean... San Kristobal eguna heltzea pozgarria da, oporrak gero eta gertuago dauden seinale.

**PLATAFORMA** / Elizabarrin hamarretakoa egingo dute, trikitilariak eta txalapartak girotuta

# Kurtzebarri mendi martxa izango da etzi, domeka, EPEH Plataformak antolatuta

MIRARI ALTUBE

Euskal Presoak Euskal Herrira Aretxabaletako Plataformak isilik egon da azken hilabeteotan. Presoen egoera, ostera, ez da aldatu, eta hori ikusita, berriro hasi da lanean. Herritarrek mugiarazteko, Kurtzebarri mendi martxa antolatu du. **Etzi, domeka, izango da.**

Etzi, domeka, mendi martxa egingo dute Kurtzebarri-ara. EPEH Aretxabaletako Plataformak antolatu du ekimena, eta helburua da herritarren bitartez euskal preso-en egoera salatzea.

### KURTZEBARRIRA IZARA JARTZERA

Orain dela hiru urte sortu zuten Aretxabaletan EPEH Plataformak. Ideia Udalak izan zuen, baina herriko talde eta elkarteek hartu zuten gidaritzia, eta hogeita hamarrek baino gehiagok eman zioten babesa orduan.

Poliki-poliki indarra galduz joan da plataformak; preso-en egoera, ostera, ez da aldatu, eta herritarrei hori jakinarazteko eta, era berean, preso-en egoera salatzeko, mendi martxa antolatu du. Kurtzebarri-ara egingo dute mendi martxa, eta Kurtzebarriko gurutzan EPEH izarak jarriko dituzte. Gura dutenak mendi tontorreraino joan daitezke eta gainerakoek hamarretakoa izango dute Elizabarrin, txalaparta hotsak eta trikitilarien doinuek girotuta. Plataformak Zaratza eta Murrukixoa



Kurtzebarriko eta Muruko gurutzetan izarak jartzeko mendi martxak egin zituzten 1999ko azaroan, plataformak antolatuta.

mendi elkarten laguntza izango du mendi martxa antolatzeko. Era berean, herritar guztiak animatu gura ditu ekimenean parte hartzera, herritarrek ere zeresan handia daukatelako preso-en egoerari dagokionez.

### KALE AGERRALDIAK EGUBAKOITZETAN

Baina mendi martxa ez da izango preso-en egoera salatzeko udan egingo duten ekintza bakarra. Uztaileko lau egubakoitzetan kale agerraldiak egingo dituzte, 19:00etan, Durana kalean. Kale age-

rraldiotan plataformak bere sorreran bultzatu gura izan zituen, eta oraindik lortu ez diren, lau helburuen berri emango du. Egubakoitz honetako lema 3/4ak beteta dituzten euskal presoak kalera! izango da.

## LABUR

### Bonba-mehatxua izan zen aurreko asteko eguen gauean Iturrigorri frontoi parean

Santa Kurtz kaleko Iturrigorri frontoi parean bonba jarri zutela esanaz deia jaso zuen Ertzaintzak egun gauean (hilak 27). Express taberna alboko tuneletik hasita Santa Kurtz kale osoa itxi zuten ertzainek 23:30ak inguruan. Iturrigorri frontoi parean

aparkatuta zeuden auto azprietan ibili ziren begira. Inguruko etxeetako bizilagunak, ordea, ez zituzten etxeetatik atera, eta asko ez ziren ohartu ere egin. Ordubete inguru ibili ziren miaketa lanean, eta ez zuten ezer aurkitu, ertzainek alde egin zuten.

### Kurtzebarri eskolako DBHko ikasleek saria

Eibarko Armeria Eskolak antolatutako proiektu teknologikoen lehiaketan hartu dute parte Kurtzebarri eskolako DBHko ikasleek. Parte hartu eta bigarren saria irabazi. Eguazten goizean jaso zuten saria Eibarko Armeria Eskolan.

### Aozaratzan uztailean ere izango da meza

Uztailean ez zela mezarik egongo auzoetan esan genuen aurreko astean, baina Aozaratzako auzotarrek izango dute. Zapatutan esango dira mezak, 19:00etan. Gainontzeko auzoetan, berri, auzoko eguna ez bada behintzat ez da egongo.

## DOIKALSE

### Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 82 44

## PAGALDAI

*Opari denda  
Burrindegia*

Durana, 33 • Aretxabaleta  
943 79 10 14

## BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g  
Tel: 943 79 91 84  
Aretxabaleta

## Iber

★ Loteria ★  
✿ Paperdenda ✿  
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 04 39

## Dorleta taberna

Bezereen zerbitzura

Loramendi, 8  
Aretxabaleta  
Tel.943 79 94 15

**OSOKO BILKURA/** PPko eta PSEko zinegotziak ere egon ziren, aspaldiko partez

# Urkulurainoko bidegorria egitea onartu du Udalak

MIRARI ALTUBE

Ezohiko osoko bilkura egin zuten astelehenean. Aspaldiko partez, PPko eta PSEko zinegotziak ere egon ziren bilkuran; hala ere, EAJ/EAKo zinegotzi bi falta ziren hamahiruak elkar-tzeko. Bost gai aztertu zituzten, tartean, Bainuetxetik Urkulura joango den bidegorria.

Alkatea eta hamar zinegotzi elkar-tu ziren astelehenean ezohiko osoko bilkuran, baita Iñaki Pierrugues PSEkoa eta Maria Rosario Arrue PPkoa ere. Bost gai aztertu zituzten, gehienak diru kontuen gainekoak.

## URKULURAINOKO BIDEGORRIA

Bainuetxean industrialdea eraikitzean Aretxabaletatik Urkulura joango den bidegorria egitea adostu zuen Udalak. Bidegorri horren lehenengo atala -industrialdeari tokatzen zitzaiona egitea- egina dago, eta astelehenean, bigarrena egitea onartu zuten.

Hil honetan bertan GAOn kaleratuko dituzte bidegorriaren lanak egiteko oinarriak, eta Udalak lehenbailehen kontratatatu gura du bidegorria eraikiko duen enpresa. Xabier Etxebarrieta Ingurumen zinegotziaren esanetan, oso leku umela da eta lanak negua baino lehen egitea komeni da. Bi hilabete izango ditu enpresa eraikitzaileak lanak bukatzeko, eta urrirako bidegorria egina egotea gura dute. Guztira, 1.800 metroko bidea izango



AMAGOIA LASAGABASTER

Aho batez onartu zuen Udaltzatik Urkuluraino joango den bidegorria egitea.

da, Bainuetxetik hasi eta Aza-zako Iraban baserri alboraino. 120.000 euroko aurrekontua du.

## LURRAK EROSI EUSKADIKO KUTXARI

Euskadiko Kutxari Aozaratzeta eta Larrinoko auzoetan dituen lursail batzuk erostea ere onartu zuten

osoko bilkuran. 700.000 metro koadro dira, guztira, eta horren truke 1.500.000 euro eman behar-ko dizkio Udalak Euskadiko Kutxari, hiru epetan. Lur horiek dagoenetan jarraituko dute, nekazaritzarako, eta Udalak ez dauka bertan ezer egiteko asmorik.

## TXUTXUMUTXUA



## AHTren aurkako martxa astelehenean

Abiadura Handiko Trenaren aurkako bizikleta ibilaldia egin dute astean barrena. Domekan hasi zen Gasteizen eta zapa-tuan bukatuko da, Bilbon. Sei egunean Euskal Y-k kaltetuko dituen herriak zeharkatu dituzte eta gure herritik astelehen eguerdian pasatu ziren. Berrogeita hamarren bat lagun zeto-zen Urbinatik bizikleta gainean eta, Landan bainutxo hartu ostean, Untzillara igo eta bertan bazkaldu zuten. Indarrak berreskuratu eta gero, Aramaiorantz egin zuten. /M.A.

## LABUR

## Automobilek aparka ez dezaten zutabe gehiago jarriko dituzte Durana kalean

Durana kalean oinezkoek dute lehentasuna, edo hori gura zuten, behintzat, berritu zutenean. Hala ere, harrizko zutabe artean auto ugari egoten da aparkatuta, eta, isunak jarri arren, ez dira gutxitzen. Hori dela eta, Udalak beste 50 zutabe jartzea erabaki du. Berdeak dira, 25 zentimetro garai dira eta 30eko diametroa dute. Plaza parean jarritakoak kendu egin ahal izango dira plazara igo behar diren autoak pasa daitezten, baina gainerakoak ez. 9.000 euroko aurrekontua daukate Durana kaleko zutabe berriek.

**PIENSO SUNZUE S.A.**

**FELIX PAGALDAY**

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea  
ARETXABALETA  
Tel.943 77 00 33/79 42 56

**Jauregi Okindegia**

Otalora, 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABALETA

**JOSU HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte kalea  
ARETXABALETA  
943 77 03 08

**Mobiliario ARENAZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia,1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**OSKAR GARAJEA**

Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
Basabe Poligonoa, A-2-4  
ARETXABALETA

**ORLY**

Herriko plaza z/g ARETXABALETA

**REGIODO**

**optika**

Loramendi, 10  
Aretxabaleta  
Tel. 943 79 98 21

**INDUSTRIA HORNIKUNTZAK**

**RKU**


**URKULU, S.L.**

Mitarte, 23  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

**Hirusta Satetxea**

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABALETA

## FOTOKIROLA



## Uztailaren 11n hasiko da Udako Kanpainaren bigarren txanda

Udaleko Kirol Zerbitzuek Udako Kanpaina jarri dute abian ume, gazte eta helduendako. Helduen kanpainak ez du arrakasta handirik izan. Gazteei eskainitakoak, ostera, bai, guztira, 77 ume eta gaztetxok eman dute-eta izena. Lehenengo txanda hasi da dagoeneko: tenisean, igeriketan, aerobikean, esku pilotan eta golfean ari dira izena eman dutenek. Igeriketan 30 lagun dabilta, baina tenisa eta golfa ere ez dira atzean geratu, bakoitzean 20 lagun daude-eta. Patinajea, eskalada eta multikirola izan dira lehenengo txandan aurrera atera ez diren kirolak. Bigarren txanda uztailearen 11n hasiko da; hortaz, interesa duzuenok lehenbailehen eman izena. Patinajeari dagokionez, gainera, hiru lagun daude zain lehendik, eta beste hirurekin osatuko dute taldea. /M.A.

## ARETXABAETA KIROL ELKARTEA

## Uste baino bazkide gehiago egon zen Batzar Orokorrean, baina batzordean sartzeko inor ez

Joan den egubakoitzean egin zuen UDAk urteko Batzar Orokorra. Uste baino bazkide gehiago hurreratu ziren, 17, guztira, baina batzordean sartzeko ez zen boluntariorik agertu. Batzarrean urteko kontuak aurkeztu zituzten, eta aurten, inoiz ez bezala, 3.000 euroko defizita daukate, sarrera berberak izanda gastuak gehitu egin direlako. Hori konpontzeko eta Debagoieneko gainerako herrietako bazkide kuotekin parekatzeko, datorren denboraldian bazkide kuota igotzea onartu zuten Batzar Orokorrean.

## SQUASHA

## Santos Aranburu zarauztarra izan da aurtengo Squash Txapelketako garailea

Joan den egubakoitzean jokatu zuten aurtengo Squash Txapelketako finala. Santos Aranburu zarauztarra gailendu zen, Sergio González de Galdeano urretxuarrari 3-2 irabazita. Santos Zarautzen bizi da, baina Debagoienean antolatzen diren squash txapelketan ere parte hartzen du. Hirugarren eta laugarren postuetarako norgehiagokan, ostera, oñatiar bi ibili ziren. Azkenean, Harkaitz Laskurainek 3-1 irabazi zion Garikoitz Ibartzabali.

## 'SHIATSU' MASAJEA

## Zainduz Osasun eta Fitness Zentroak 'Shiatsu' masajea zelan eman erakutsiko du

*Shiatsu* izeneko Ekialdeko masajea zelan eman ikasteko, ikastaroa antolatu du Zainduz Osasun eta Fitness Zentroak. *Shiatsu* masajearen helburuetako bat da norberaren gorputzak osatzeko duen sistema martxan jartzea. Horretarako, eskuak gorputzeko atalen gainean jarri behar dira indarra eginez. Ikastaroa uztailearen 13an eta 14an izango da Zainduz zentroan bertan: zapatuan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era, eta domekan, 10:00etatik 14:30era.



*Basaben eta Loramendin gertu eta fin!*

Basabe 2. Tel. 943 77 00 81  
Loramendi 6. Tel. 943 77 17 19

*Aretxabaleta  
okindegia*



ATXABALTARRAK MUNDUAN

JULEN COBOS

LANGILEA / BARTZELONA

**“Bost urte daramatzat etxetik kanpo, eta ia sinetsi ere ez dut egiten!”**

AMAGOIA LASAGABASTER

Julenek txikitatik izan du bidaiatzeko grina berezia. Cousteau-ren dokumentalak ikusten zituenetik, bere burua horrelaxe imajinatzen zuen, etengabeko bidaiaren baten. Eta Julen leloa horixe da, hain zuzen ere: *Txapela buruan eta ibili munduan*. Gaur egun, Julen Cobos gaztea Bartzelonan bizi da. Kataluniako hiriburura heldu aurretik, baina, beste hainbat lekutan bizi izan da: “1994. urtean egin nuen nire lehenengo bidaiaren handia; orduan, Guatemalan izan nintzen bi hilabetez. 1997. urtean, berriz, Mexikora joan nintzen urtebeterako; ez zen erabaki erraza izan, ikasketak bukatu berri nituen eta logikoena zen lana bilatzen hastea... Edozelan ere, etxe-koak eta lagunak herrian utzita joan nintzen. Eta azkenik, 1998. urtean Mexikotik bueltatu eta gero, jarraian, Bartzelonara joan nintzen bizi izatera; hortaz, eta kontuak aterata, bost urte daramatzat etxetik kanpo; ia sinetsi ere ez dut egiten!”.

Edozelan ere, eta arraroa badirudi ere, Julenek ez dio aparteko garrantzirik ematen jaiolaketik urrun bizi izateari. Julenendako, bizitokia baino gehiago, nor bere buruarekin zer egin gura

**“Gustuko lana daukat, katalana ikasten ari naiz eta musika taldea ere badaukat”**

duen askatasun osoz erabakitze aukera da garrantzitsuagoa; eta hori edonon aurki daitekeela uste du. Badirudi, gainera, Julenek hori guztia lortu duela Bartzelonan: “Gustuko lana daukat, katalana ikasten ari naiz eta musika taldea ere badaukat”.

Dena dela, herrimina ere sentitzen du; hona hemen faltan sumatzen dituenak: familia, lagunak, *Aiur* (gure etxe-ko txakurra), Urbaltzeko elkartearen lagunekin afa-riak, amamaren etxe-ko bazkariak, Urkulu, poteoa, Degurixa, herriko jendea...

HURRETIK



Naiara Olabarria

EPEH Plataformakue

**Naiara Olabarriak 23 urte ditu eta enfermeria da. Oin dala hillebete sartu zan EPEH Plataforman. Naiararen ametsa da osaba, Kepa Urrea, eta euskal presuek laster etxien ikustie.**

Zergaittik sartu zitzen plataforman? Dantza taldeko ordezkari naz. Oin dala hillebete inguru sartu nitzen, EPEH Plataformak egindeko azken deialdixaren ostien.

Holako beste laguntza talderen baten hartzen dozu parte?

Bai. Oin, Zuberoari laguntza emuteko taldeen nabil, baiñe bueno, laguntza hori nahiko puntuala izengo da.

EPEH Plataformiek zergaittik galdu dau, zeure ustez, hasiera baten euken indderra?

Plataformie ETak su-etena egin euenien sortu zan; orduen konturetu zan jentie presuen eskubidiek ez ziela errespetetan. Oingo egoerie desberdiñe da, baiñe hala eta be, presuek iguel jarraiketana daue. Eta kontue da jentie, barrero be, ahaztu egin dala horretaz.

Kepa Urrea osaba dozu. Ze moduz dau? Etxetik urrin jarraiketana dau... Bestela, animoz nahiko ondo dabil.

Domekan presuen aldeko mendi mar-txa egingo dozue. Zein da helburue? Batez be, jentiarri gogoraraztie presuek, ondiokan be, egoera txarrien eta etxetik urrin daguzela.

Zu mendizalie zara?

Ez larregi.

Udako zein jai ez dozu galtzen?

Andramaixek.

Zein izengo da ‘udako abestixe’?

Neuri ez gustau arren, Las Ketchup tal-diaren abestixe.

Oporrak preparau dittuzu?

Ondiokan dana ez... Seguruenik, bizikletan fango naz norabait.

A.L.

NIREBIDAIAHURA / Jose Luis Arratibel


Europatik zehar / 2001eko abuztua

Parrokiako lagunek antolatutako bidaiaren kontatu-ko digu Jose Luis Arratibelek. Dagoeneko horrelako bost bidaiaren egin ditu Jose Luisek. Azkenaren iaz egin zuen, Europa erdialdera, hain zuzen ere.

2001. urteko abuztuaren, Jose Luis Arratibel eta beste berrogeita hamar lagunek autobusa hartu eta Europa erdialdetik zehar egin zuten bidaiaren. Abuztuaren lehen irten eta 10ean bueltatu ziren. Hainbat hiritan izan ziren, urrunen, Pragan. “Kilometro asko egin genituen. Gogorrenak lehenengo eta azkeneko egunak izaten dira, orduantxe egiten ditugu eta bidaiaren tarte luzeak”.

Aretxabaletatik irten, eta lehenengo geldiduna Frantziako Orleans hirian egin zuten. Han, besteak beste, Loirako gaztelu handiena bisitatu zuten, Chambord-eko gaztelua, hain zuzen ere. Gero, Orleansetik Luxenburgora joan ziren. Luxenburgon egun bat pasatu zuten, eta hango monumentu eta eraikin historikoak ikusi zituzten.

Bidaiarekin jarraituz, abuztuaren 3an, Alemaniako hiriburura iritsi ziren, Berlinera. “Nire ustez, bidaiaren leku politenak Berlinen ikusi genituen. Berlingo Murrua bota ostean zelan gelditu zen ikusi genuen, eta hunkigarria izan zen niretako. Baina ez hori bakarrik, *City-Tour* delako autobusekin hiri osoa ikusteko aukera izan genuen”. Berlindik, hurrengo, Pragara joan ziren, eta han bisita turistikoarekin jarraitu zuten. “Praga ere izugarri gustatu zitzaidan; han ere badago hamaika eliza eta museo ikusgarri!”. Azkenik, eta nekatuta izan arren, etxera itzuli baino lehenago bi egunean Estrasburgon izan ziren; gero, Frantziako Orange herrian beste geldiduna bat, eta, zelan ez, Andramaixetarako herrira itzuli ziren.



**“Nire ustez, bidaiaren leku politenak Berlinen ikusi genituen”**

**“Praga ere hamaika eliza eta museo ikusgarri dago”**

AMAGOIA LASAGABASTER



Jose Luis Arratibel eta lagunak, Frantzian, perretxikoak egiten.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

# Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko uztailaren 5a / 87. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

## Eskoriatzarrek gogotik gozatu dituzte San Pedroak, eguraldiak lagundu ez arren

AINTZANE GARDOKI

“Giro polita eta herritar asko jaietan”. Berba horiekin laburtu dizkigu Arantxa Untzuetak aurtengo San Pedro jaiak. “Ez dugu balorazio sakonik egin oraindik, baina jai politikak izan direla uste dut. Herritarren parte hartzea handia izan da, gainera. San Pedro egunean, eguraldiak eguna tristatu zuen, baina gero, eguraldiak eta herritarrak lagunduta giro polita izan dugu, Euskal Jaian, bereziki. 300 lagun batu ginen bazkaltzeko, eta 200 espero genituen. Pozik gaude,” esan du Arantxak.


ARGAZKIAK: 'ZE BARRI', A.G.

*Xabier Zugastik, jaiak hasteko, txupinazoa bota zuen berritzen ari diren udaletxetik*

*“Herri bazkarian 200 lagun elkartuko ginelakoan geunden, eta 300 elkartu ginen”*



Herri bazkarian bezala, ekitaldi guztietan herritarren parte hartzea handia izan da.



Xabier Zugastik, kultura etxetik, ondo pasatzeko gonbita egin zien eskoriatzarrei.



Herriko umeek danbor hotsekin alaitu zuten domeka arratsaldea.



Sagardoa edateko aukerari ez zioten hutsik egin eskoriatzarrek.



Benetan maila ona erakutsi zuten herritarrek taloak egiten.



Gatzagako herri ipuin bat erakutsi zuten Txikien Danborradan.





Musika Eskolako Bandak ekitaldi ugari girotu zituen.




Zapatuan, eta euriaren erruz, elizbira elizan bertan egin behar izan zuten.



Buruhandiak ere ez dute hutsik egin sanpedroetan.



Herriko erretiratuek ere jaialdi berezia egin zuten egunean.



Astelehenean, GOITBk Eskoriatzatik egin zuen albistegia.

## LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA  
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61



*Gustora egoteko!*

Intxaurtxueta 8  
**ESKORIATZA**  
943 71 40 63

## ESTETIKA ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA



# EDURNE

Aranburuzabala, 42  
Tel.: 943 71 51 54  
**ESKORIATZA**

# Baserrietan eta kalean herritar ugari batu ziren San Juan Suaren inguruan

AINTZANE GARDOKI

Auzoetan nahiz herrian bertan, egun osoan lagun izan zuten lanbroa ahaztuta, suaren inguruan batu ziren gatzagarrik. Kalean ohiko bihurtu diren sardinak eta saiheski errea ez ziren falta izan. Ardo beltza lagun, gogotik afaldu zuen batek baino gehiagok sua piztu bitartean. Suaren inguruan *San Juan* kantua hirutan abestu ondoren, dantzan egitera ere animatu ziren herritar batzuk.



Belokik, aurten ere, ez du hutsik egin San Juan bezperako prestaketa lanetan.

*Sardina erreak eta saiheski errea gura beste egon zen San Juan bezperan kalean*

JOSE ÁLVAREZ / DORLA KOOP.

*"Gau berezia izaten da"*

Josek, Javilorekin batera, aurten ere San Juan bezperako sua egiteko ardura izan du. Hirugarren urtea izan dute oraingoa. Urtean barrena inausteetako arramak gordetzen dituzte, gero, sua egiteko.

Lan handia izaten duzue?

Sua egiteko azpian jarri beharreko txapak jarri eta kentzea da lan astunena. Bestela,



herriko zuhaitzak inauten ditugunean, arramak pilatu, eta gero plazara ekartzea besterik ez da gelditzen. Aurten, sua pizteko lana izan zenuen, ezta?

Egurra bustita zegoen, eta gasolioa bota behar izan genuen. Badu berezitasunik gau horrek zuretako? Bai. Lehen ere herriko gazteok sutzarra egiten genuen. Oporrak hartu ondoren horixe izaten genuen buruan: sua prestatzeko egurra non jaso, zelan lekuraino eraman... Oraín, lan egin behar izaten dut, baina berezia da.



Txikienak ere adi egon ziren suari begira.



Ohiturari jarraituz, umeek ere hirutan abestu zioten San Juani.



1995ean ere herritarrak suaren inguruan batu ziren.

aroztegia  
**Leintz**

Aingerugarako ibilbidea  
Tel.: 943 71 49 36  
ESKORIATZA (Gipuzkoa)

- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

**OTZETA**  
TABERNA • JATETXEA

- Eguneko menua
- Palter konbinatuak
- Bokadiluak
- Pintxuak




Aranburuzabala 7. Tel.: 943 71 51 90 ESKORIATZA

**FAGOR**



Fagor Ederlan, S.Coop



**MONDRAGON**  
AUTOMOCION

AUTOENDAKO OSAGAIK

Gaztainadui, 42 • 20540 ESKORIATZA • Tel.: 943 71 90 00



**DORLETA**

Aranburuzabala, 22 behe  
ESKORIATZA  
Tfnoa.: 943 71 51 20

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

# Gremioen Gida

## Altube

elktrizitatea CB

San Migel 13 - 1D  
Aretxabaleta. 943 79 53 88

Dintura eta dekorazioa

## Gimbert

San Migel 13, behea C  
ARETXABAleta  
609 143 119

## TXOMIN

igeltserotza  
ARETXABAleta

ERREKABARREN 20  
607 739 835 / 943 79 63 94



RADIO  
ELECTRICIDAD  
LEGAZPIA  
"R.E.L.E."

Denda:  
Santa Ana 17, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65  
Tailerra:  
Santa Ana 12, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

## AITZORROTZ

elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10  
Otalora, 14 ARETXABAleta

Hnos. SAJERAS, C.B.

Margogintza  
Dekorativo eta Industrial

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA  
Tel.-Faxa: 943 71 47 28  
Arrasate Tel.: 943 77 16 66  
Mobila: 608 92 11 18

## PINTURAS



## ESKORIATZA

- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ek. ESKORIATZA  
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769



Jon Axpe Oyanguren

## OYANGUREN

Iturgintza

Aranburuzabala 15  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 47 14  
606 007 369  
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Peetrolio-produktuak
- limatizazioa

## L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D  
ARETXABAleta  
686 113 581 / 943 79 65 46

## AIDE GAS S.L.

Loramendi 8, Aretxabaleta.  
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

Gasa • Berogailuak  
Bainuak • Iturgintza



Instalazioen mantenu osoa  
Berokuntza • Gasa  
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.  
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97



ALUMINIOA/P.V.C.α/POLIURETANOA  
ALUMINIOA-EGURRA  
PERTSIANAK ETA OSAGAIK



Araba ibilbidea, 17  
\*Tel. 943 79 28 41 \*Fax: 943 79 79 06  
\*20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
\*E-mail: kurtzebarriehaok@euskalnet.net

## GORBEA S.L.



Basabe poligonoa A-2-5 ARETXABAleta  
Telefonoa eta faxa 943 79 15 71

## ARETXABAleta

ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53  
ARETXABAleta

## J.J. ITURGINTZA

## IRURE

URA  
GASA  
KALEFAKZIOA



MITARTE 15  
ARETXABAleta

943 793 187

12.000 €  
**12.000 €**  
1.996.632 pezeta

## Fordfocus Trend 1.6i 16v 100zp

- ABS
- Lau aire-poltsa (aurreko aldean eta aldamenetan)
- Direkzio lagundua
- Ateen itxiera zentralizatua urruneko kontrolarekin
- Lainotako faroak
- Control Blade atzealdeko esekidura independentea
- RDS irrati-CDa (aginte kontrola bolantean)



**fordfocus gama:**

Gasolina 75 ZPtik 115 ZPra (10.929 €-tik aurrera)

Diesela TDDi 75 ZPtik 115 ZPra (12.000 €-tik aurrera)

\* Prever planak barne

**fordfocus**  
diseinu inteligentea



(Salneurri gomendagarria hiru ateko autoetan. Garraioa, BEZ, Matrikulazio Zerga eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Gasolina Prever plana barne. Aleazio-hagunak aparte. Martxoaren 31ra arte balioa du eskaintzak.)

# MUGARRI AUTOAK

Araba etorbidea, z/g  
ARRASATE-MONDRAGON  
Tel: 943 797 564

902 442 442  
[www.ford.es](http://www.ford.es)